# MERMEL-en MUNDU ARRAROA

*Haur eta lehen kezkuntzan anitztasunari eta disidentzari ekiteko ipuinak*

**Melani Penna Tosso • Mercedes Sánchez Sáinz • Belén de la Rosa Rodríguez**

**Ana Moyano Cano-ren ilustrazioak**







# MERMEL-EN MUNDU ARRAROA

© 2020: Polvorilla (Melani Penna Tosso), Rochi (Mercedes Sánchez Sáinz), Bol (Belén de la Rosa Rodríguez).
© 2020, ilustrazioena: Ana Moyano Cano.
© 2020, edizio honena: CCOOko Irakaskuntza Federazioa.

Lehen edizioa: 2020ko maiatza.

Diseinua eta maketazioa: Ana Moyano Cano.
Itzulpena: Eloi Artolazabal.
Inprimaketa eta azaleztapena: Eujoa Arte Grafikoak.
Espainian inprimatua.

ISBN: 978-84-09-17568-0
Lege-gordailua: M-12912-2020

Ezin izango da liburu hau osorik edo zati batean kopiatu, ezta edozein modutan edo edozein bide erabiliz transmititu ere, copyrightaren titularren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe. Aipatutako eskubideak urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke.

♥

## eskerrak

Eva Sánchez Mateos eta Sara Sánchez Mateosi, ipuin horietako gogokoenak zeintzuk zituzten esateagatik.
Soledad Trujillo Barbadillo eta Yera Morenori Sainz-Ezquerra, beren kritika, beti, konstruktiboengatik.
Familiei: Gemma Romero Dieguezena bezalakoei, ipuinak Abril eta Leori kontatu baitizkiete.

**Ipuinen printzipiotan…**

Esku artean dituzun *Ipuin arraroek* tresna bat izan nahi dute Izateko askatasunean hezteko. Helburu nagusia norbanakoen eta taldeen arteko desberdintasunen arteko haria ezartzea da, eskolan dauden eta oro har ikusezin bihurtzen diren pertsona guztien errealitateak agerian uzteko.

CCOOko Irakaskuntza Federaziotik urte asko daramatzagu estereotipo sexistarik, LGTBIfobikorik, kapazitatistarik, arrazistarik, klasistarik eta hegemonikorik gabeko hezkuntzaren aldeko apustuan, ikuspegi intersekzionalarekin eta ikasle guztien premiekin bat datorren eskola bat eraikitzen laguntzeko helburuarekin. Ezin dugu ahaztu mundu jasangarriago eta bizigarriago baterantz joateko gogoa.

Ilusiotik eta indar kolektibo eta indibidualetik, purpurina bezala distiratzen eta harritzen duen eskola bat lortu nahi dugu azken batean.

Metodologiari dagokionez, *Ipuin arraro* hauek proiektu pedagogiko zabalago baten parte dira: *Mermelen mundu arraroa*, ikasgelan eta familiekin aplikatzeko proposamen didaktikoak dituena. Material horiek internet bidez eskura ditzakezu CCOOko Irakaskuntza Federazioaren webgunean (fe.ccoo.es).

# MERMEL-en MUNDU ARRAROA

*Haur eta Lehen Hezkuntzan aniztasunari eta disidentziari ekiteko ipuinak*

Polvorilla, Rochi, Bol

Ana Moyano Cano-ren ilustrazioak

# Mermel-en munDu arraroa

Ipuinen munduaren hastapenean,
Mermel-ek ez zuen ilerik, ezta gorputz itxurarik, larru kolorerik eta tamaina zehazturik ere.
Ipuinen munduaren hastapenean, Mermel-ek izan ez zuen, Mermel, soil-soilik zen.
**Behin, bere burua sortaraztea erabaki zuen arte.**

Lehenik, ilea kizkurtzea erabaki zuen.
Askok aurpegiratzen zioten:
—Ile kiribila, espartzua!, zure aitak zartaginak garbitzeko zure ilea hartzen al du?
Beste pertsona batzuk, ordea, ile horrekin atseginagoa zela zioten.
Orduan, ausarta zen Mermel-ek, ilea kizkurtzea erabaki zuen; itsasoko uhinen itxura zirudielako eta bere gainean ibiltzea oso dibertigarria izango zela uste zuelako.

Gero, betaurrekoak eramatea erabaki zuen.
Askok aurpegiratzen zioten:
—Lau begitako, ñimiño, betaurrekoak izanda zure etxean ez duzue edontzi-azpikorik behar izango, ezta?
Beste batzuk, aitzitik, bere betaurrekoetatik begiratu nahi zuten, ezberdin ikusten baitzen eta guztiz interesgarriago zirudiela zioten.
Orduan, Mermel-ek, aurretik pentsatuta zeukanez, betaurrekoak eramatea erabaki zuen; horrela, haizeak ez zion begietan trabarik egingo bizikletan zihoanean eta jendearen irribarrea hobeto ikusiko luke.

Geroxeago, gorputz potoloa izan behar zuela erabaki zuen.
Askok aurpegiratzen zioten:
—Mozkote, ipurdi gizen, pisuak arin ibiltzea oztopatzen dizula!
Beste batzuk, ordea, ekaitzari sendo eutsiko liokeela zioten
eta itsasoko olatuetan ur gainean mantenduko zela.
Orduan, Mermel-ek, zalantzarik ez zuela, neguan hotzik ez pasatzea
eta bere burua asko maitatzea erabaki zuen.

Ondoren, larru beltzarana izatea erabaki zuen.
Askok aurpegiratzen zioten:
—Kaka kiratsa, trapu zikina!
Beste batzuk, ordea, bere larrua arrastiriaren bezain goxoa zela zioten.
Orduan, Mermel-ek, aurretik erabakita baitzeukan, larru beltzarana izan nahi izan zuen, **bere historia inork ezaba ez zezan.**

Azkenik, Mermel-ek ez neska ez mutil izatea erabaki zuen.
Pertsona askok aurpegiratzen zioten:
—Marimutil, maritxu, zu zer zara mutila ala neska?
Beste batzuk, ordea, bera zena izateko eskubidea zeukala ziurtatzen zuten.
Orduan, Mermel-ek, aurretik guztiz erabakita zeukala, **ez mutil eta ez neska izatea** lortu zuen eta baita nahi zuenera jolastu ere, egin behar zuena inork esan gabe: bero zegonean, gonaz jantzi, jolastu nahi zuenean galtzak eta egoera dotoreetan urkilak eta gorbatak eraman eta, **ororen gainetik, izan nahi zuena izatea.**

Horrela, Mermel-ek edukitzea eta izatea lortu zuen.
Orduan Mermel, zoriontsu, lagunen eta familia baten bila irten zen.

Hemen eta orain hasiko da bere abentura.

Mermel iristen den herria berezia da,
adin guztietako jendea bizi da
eta bertan pertsona guztiek
berdin agintzen dute.

Familia bakoitza nahi duen lekuan bizi da,
eraikuntzetan, etxeetan eta txaboletan,
mundu guztia entretenitzen da.

Bakoitza, nahi duen erara janzten da,
udara, udazkena, negua zein udaberria izan,
pontxoz, kaftanez, gonaz eta galtzez,
guztiak kolore anitzez brodatuak.

Mermel-en herrian jatekoak era askotarikoak dira,
haziak ereiten dituzte eta baita azokara joan ere.
Eta, lekuren batetara heltzeko,
ibaian, lurrean, airean zein itsasoan zehar joan daitezke.

Mermel-en herrian, festak ospatzen dituztenean,
dantzan eta abesten aritzen dira eta baita siesta egin ere.
Herri honetan pertsona guztiak sar baitaitezke.
Koloreak, tamainak eta itxurak askotarikoak dira leku honetan.

Horren berezia den leku honetara Mermel iristen denean, etxe bakarra dago hutsik, eta bertan bizitzera sartzeko proba bat gainditu behar du.
Atea irekitzen duen giltza aurkitu beharko du.
Mermel-ek badaki, laguntzarik gabe ezin dezakeela hori lortu.
Bere adineko sei pertsonaz osatutako talde batera jotzen du.

Hurbildu ahala, horien solasaldia entzuten du:
—Kokoteraino nago, Down sindromea dudalako, jendeak ustea aldiro pozik egon behar dudala! —dio Polchi-k.
—Niri, ijitoa naizenez, jende guztiak abestea eskatzen dit, nik abesten jakingo bainuen!
—Arrazoi duzu, Fer —dio Kriscar-ek—, ni itsua naizenez eskutik heltzen didate kalea gurutzatzeko, nik ez eskatu arren.

—Kaixo! —mozten du Mermel-ek—, zein da zuen izena?
Polchi, Peca, Mebe, Kriscar, Pitu eta Fer, erantzuten dute.
—Ni Mermel naiz, herri honetara etorri berria naiz eta etxe honetan bizi nahi dut baina, horretarako, giltza aurkitu behar dut. Lagunduko didazue?



—Pitu, joan zaitezke azkar giltzaren bila? —dio Mermel-ek.
—Arazorik gabe! Igo nire gurpil-aulkira eta berehala iritsiko gara.
Kriscar-ek oihukatzen du: Giltzaren tintin-hotsa entzuten ari naiz!
Badirudi txori bat bere mokoaz giltza mugitzen ari dela!
—Hor dakusat —dio Mebe-ek keinu-hizkuntzan—,
zuhaitz horren adaburuaren barrutik distira datorkigu!
—Goazen, Mermel —deiadar egiten du Peca-k—, ez zaitez atzean geratu!
Eta Mermel-ek, zuhaitzerantz korrika, dio: Txoriak eraman baino lehenago,
igo gaitezen zuhaitzera.
—Lasai! Zuen oharpenez zuhaitzera igogara eta giltza badugu —oihu egin
zuten Polchi eta Fer-ek, emozio osoz, giltza eskuan zutelarik.

Mermel-ek, orduan, pentsatu zuen: Koadrila honek zoratu egiten nau.
Horren ezberdinak izanik taldean lan eta gauza-piloa egin ditzakegu.

# Truke eginez

Herrian egun aparta da asteazkena,
inork ez du hutsik egin nahi, trukearen eguna baita.
Errementari andereak metalezko objektuak daramatza,
urtzen ditu eta edozein objektu eman diezazuke.
Okinak ogiak eta pasteltxoak daramatza,
ortuzainak barazkiak,
eta elkarrekin guztia oso goxoa da.

Trukaketa honetan zerbait aldatu nahi baduzu,
sosik ez erabili, aizu!
Abestiak, masajeak besarkada edo jantziak eman
eta, ordainez, erabili behar duzuna
eramango duzu.
Horrela Mermel-ek bere etxebizitza altzariz jantzi ahal izan zuen,
trukean aritzeko beregaitasunak eskaintzen.

# zer jantziko dut?

Gaur, nire lehen eskola-eguna da.
Ez dakit garbi zer jantzi,
daukadan arroparen artean begiratuko dut
zein datorkidan hobekien.

Niri ez zait jendeak esan dezakeena axolik,
ez zaizkit koloreak axolik, ez zait moda interesatzen
eta berdin zait neskarena edo mutilarena direla esaten badute ere.
Axola zaidana zera da:
**jolastu, abestu, barre egin eta dantzatzeko askatasuna. La, la, la.**

Gustukoen dudan jantziaz hasten naiz.
Biratzen naizenean, badirudi hegan ari dela.
Oinak agerian eramatea maite dut,
ibiltzean haizeak kilimak egiten baitizkit,
baina, uste dut parkeko jolasetan
deserosotasuna senti dezakedala.

**Jolastu, abestu, barre egi eta dantzatu, la, la, la.**

Orain *blue-jeanak*,
kamiseta eta txapela probatzen ditut.
Galtzak zertxobait eroriak dira eta kamiseta urdina eta zabala.
Oso erosoak iruditzen zaizkit jolasteko,
baina zertxobait aspergarriak.

**Jolastu, abestu, barre egin eta dantzatu, la, la, la!**

Uste dut badaukadala!
Oraindik estreinatu gabeko bota moreak,
trukaketan aldatu nituen galtzekin
eta mahukarik gabeko kamiseta koloredunarekin batera.

**Jolasteko, abesteko, barre eta dantza egiteko balio dit. La, la, la!**

Nahi dudan guztia betetzen du,
kolore alaiak dira eta jolasean eroso nabil…
Zer gehiago eska dezaket nire lehen eskola egunean?

# JOLAS ORDUAN

Nire eskolako patioa
guztiz berezia da,
dantzarako pista dauka
eta partxisean ibili ahal da.

Gune irekia dauka korrika egiteko eta egiteko,
beste bat barazkiak jasotzeko.

Guztiok ongi pasa genezake,
Hitz egin, jolastu eta, **batik bat, barre egin baitaiteke.**

Jolasten, eta jolasten **adinezkoak imajinatzen gara**.

Fer-ek futbolari izan nahi du,
baloia trebeki jaurtitzen baitu.
Peca-k dantza maite du,
hip hop-a ezin hobetzat jotzen du.
Pitu postari azkarra da,
zintarri kaltegarri hori kendu egin behar da!
Kriscar-ek beroa detektatzen du,
etorkizunean suhiltzaile izan nahi baitu.

Polchi aktore da
eta zuzendari ospetsu batek deitu dio.
Mebe-k atsedena noiz hartu erabaki nahi du
eta egunen batean mundua aldatuko da.
Mermel kezkaturik dago,
ez du bere burua inolako lanbidean ikusten.

**Ring, ring**, tirrinak jo du!
Bukatu da, gelara itzultzen gara,
datorrena datorrela, ikasi egin behar da.

# Jolastera baino ez goaz

Gaur nire urtebetzea da.
Zerbait oparituko didate?
Erabat urdurik nago!
Ez baitakit zer ekarriko didaten.

Polchi-k baloia dakar,
jaurtitzen aritu gara.
Erabat atsegina!

Peca-k panpina dauka,
eta, asko hazi
eta etorkizunean nahi duen guztia izateko
ematen diogu janaria.

Pitu-k patina dakar,
gainean jartzea uzten dit
eta azkeneraino iritsi gara.

Mebe-k urkila batzuk dakartza,
buruan jarri
eta kilimak egiten dizkigute.

Fer-ek klarionak dakartza,
partxis bat marrazten
eta barrea eragiten digu.

Baina gehien atsegin zitzaidan oparia
asmatu genuena izan zen.
Zer gertatu zen jakin nahi duzue?
Ez genuen sosik gastatu eta bai ongi pasatu.

# Asmakizunetara jolasten

Eskolatik irtetean, baso arrarora jolastera joatea erabaki zuten, baina sartzeko, gutxienez, asmakizun hauen erdia asmatu behar zuten…

Itxi ezin daitezkeen
Itsas kurkuiluaren itxura dugu.
Begietatik hurbil gaude
eta ezkoa garbitu behar diguzu.

Zer duzu hankartean
garbitu beharrekoa,
inoiz azkurarik eman ez
eta usain txarrik ez izateko?

Labur zein luze izan daiteke,
guztia zapatua edo alde batetik soilik.
Taula bat bezalako leuna, izurtua edo kizkurtua.
Gora, behera,
horia, gorria edo arrea.

1:Belarriak 2: Genitalak, alua, zakila 3: Ilea

Barruan, kanpoan edo erdialdean,
hazten da,txikiagotzen da, baina ez du beldurrik ematen.
Ukitu nahi baduzu
ez da gauza txarrik gertatuko
esku garbiekin eta kontu handiz,
hori da pentsatu behar duzuna.

Erditik zatituta,
oso garbia izan behar du,
sorbalda bertan bukatzen da
eta bira egin arren ezduzu ikusten.
Baina, hitz egiten utziz gero,
ekaitza sortuko da.

Bizarrean eta bibotean sortzen zaizkit,
belaunetan eta besoetan,
sortzen zaizkit hemen, sortzen zaizkit han,
ika-mikak kanpora, ez ditut kendu nahi.

Puntutxikia naiz,
bihotzetik oso gertu,
pitin bat haz naiteke
eta hotzarekin gogortxo jartzen naiz.

4: Klitoria, glandea, genitalak  5: Ipurdia  6: Gorputzeko ilea  7: Titiburua, titiburuak

# ADI, ADI!

Eskola lehen astean zainketen astea ospatzen dugu.
«Adi, adi!» deitu diogu.

Astelehenean gauzak, mahaiak, aulkiak eskailerak, arbel digitala eta, nire gustukoena, koloretako klarionez marrazten dugun arbela zaintzen ditugu. Eta gela garbitzen dugu.

Asteartean alkate andereari gutun bat idazten diogu, gure hirian ingurumena zaintzeko eskatuz. Baratzea ureztatzen dugu, paperak birziklatzen ditugu eta oinez, bizikletaz edo gurpil-aulkiz etortzen gara. Nolako dibertigarria astea!

Asteazkenean zerbait garrantzitsua dagokigu: maskotak. Egun horretan, animaliak babesteko elkartetik datozkigu; zuzendari andereak bere txakurtxoa ekartzen du eta atezainaren gelatxoko *hamsterra* agurtzen dugu. Ikustekoa da zein zoriontsu garen ongi zainduak dauden animaliengandik gertu gaudenean!

Ostegunean, patioan adiskidetasunaren eserlekua margotzen dugu.
Hantxe esertzen denak beti lagunartea izango du. Beharrezko duenari
besarkadak ematen dizkiogu, gure musikak gogaitzen duen galdetu
eta goibeldagoenari abesti bat eskaintzen diogu.

Eta ostiralean, asteko egunik hoberenean, **nire burua zaintzen dut.**
Zer behar dudan aztertzen dut.
Polchi-k abentura liburu bat irakurtzen du,
Fer-ek leihotik begira ari da eta beste munduak irudikatzen ditu.
Kriscar-ek, berriz, bere burua ukitzen du masaje bat emanez.

Larunbata eta igandea bikainenak dira. Gure adinduak zaintzen ditugu eta
garbiketan lagundu, animaliekin jolasean aritu, landara paseatzera irten eta,
ororen gainetik, nigan eta maite duen jendearengan pentsatzen dut.

*Adi*, *adi*, zer da gehien maite duzun hori?

# Neri egitea gustatzen ez zaidana kontatzen dut

Afaldu ondoren, Mermel, lastoz egindako bere sofan esertzen da eta pixkanaka lo hartzen du, orduan mundu errespetagarriagoarekin egiten du amets…

Nire masailak marruskatzea atsegin ez bazait, etzazu egin.
Auzokidea besarkatu nahi ez badut,
ez nazazu horretara behartu.
Mototsak gustatu ez eta gorrotatzen baditut,
errespeta ezazu nola orraztu nahi dudan.

Zu nigana gehiegi hurbiltzea atsegin ez bazait, alde nigandik.
Zuk ni ustekabean harrapatzea gustatzen ez bazait, galdetu aurretik.
Gonak jarri nahi ez badut, utzi nire jantziak aukeratzen.
Txiki izatea ez da gutxiago izatea, Txiki izatea baino ez da.

Zure beharrak ez dira nireak.

**Zu zeu zara, ni neu naiz…**
Begiratu eta errespeta nazazu.

# hanketako behatzak

Mermel-ek, hanketako behatzen bitartez,
maitasuna aurkitu zuen.
Emakume batekin dagoenean,
badirudi hanketan inurriak arineketan dabiltzala.
Honek zertxobait atsegin bazaio,
behatzak etengabe irekitzen zaizkio.

Mermel eta Kriscar elkarrekin besarkatzen direnean, ordea,
agudo erlaxatzen zaizkio.
Eta norbait gustatuz gero,
azkeneraino joango da.
Maitasunak izozkien zaporeak
bezain askotarikoak dira.

# Karakola

Baso barnean, karakolak bere bizitza kontatu zien…

—Kaixo, Karakola!—esaten zioten bere lagunak.
—Kaixo, nire etxera etorri nahi duzue?
Karakolak bere etxean festa ugari antolatzen zituen. Gusi-Gusi gonbidatzen zuen,
Serafina beldarra, Fino inurria eta Tulga arkakusoa.
Karakola Sebastopolen bizi den barraskiloa da, bere adarrak eguzkitara ateratzen dituena.

Baina, behin bere etxean gonbidatzeari utzi zion,
ez zuen festarik egiten eta ez zen etxetik ateratzen.
Eta esaten zioten: Karakola, Karakola, atera etxetik, ez baitzaude bakarrik.
Baina Karakolak ez zuen hitz egin nahi eta Figo inurriak mehatxatu eta esaten zion:
—Zure etxetik botako zaitut eta zure ama joko.

Fino inurria Karakolaren etxean sartu eta ez zion lo egiten uzten.
Pijamaren azpitik ukitzen zuen berak nahi ez izan arren.

Behin, Karakola nazkatu eta Fino-ri **Ezetz** esan zion baita lagunei, bere familiari eta maistrari kontatu ere, eta, ondoren, taldean Fino inurriarihauxe esatera joan zire:

—**Ez**, **Ezetz** da. Zein letra ez duzu ulertzen, **E** ala **Z**?

# TXAS-AREN RAP-A

(«Txas egiten dut eta zure ondoan agertzen naiz» esaldia , Álex eta Cristinaren abestitik atera da, 1987)

Irainak patioan,
maritxu, lau begitako, lodikote, ñimiño,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Oihuak, isekak, arbuioak,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Kolpeak, bultzadak, ostikoak eta harramazkak,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Ez dago irtenbiderik, bakardadea, denbora izoztua,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Txas egiten dut, txas egiten dut, txas egiten dut,txas egiten dut.
Ni zurekin, zu nirekin, denok elarrekin, gehiago gara.
TXASSSSSS![1]

1. Rap-eko erritmoan abestu.

# IPUIN ARRARO ETA BUSTIA

Mermel-ek badu gorputza, herria, etxea, koadrila, jantziak… badu elkartea eta,
egun batzuk direla, Manuela astemearekin bizi da.

Festa egunean familia guztiak landan elkartzen dira, barreak hemen, barreak han,
jolas-piloa eta jatorri askoko janariak.

Mermel Manuelakin joan da etaMeberekin elkartzen da; honek familia handia du:
aiton-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak… Gauza dibertigarriak egiteko
biltzea maite dute eta, dantzaren erdian, Manuelak halako soinua duen uzkerra botatzen du:
«Prrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrr»
Irriak alboko herrian ere entzuten dira.

Babestua bizi eta bere txakur txikiarekin ezin hobeki pasatzen duen Kriscar bisitatzera doaz.
Txakurtxoarekin jolasten dute eta bumerang baten antzera joan
eta etortzen diren makilak botatzen dizkiote.
Manuela halako iskanbilarekin urduri jartzen da eta airera ostikoka hasten da.
Ji, ji, ji, ja, ja, ja, barrezka jarraitzen dute etengabe.

Fer bere aitarekin, bere ahizpa zaharragoarekin eta tablet-etik arrainak jaten jolasten duen kateme batekinbizi da. Bere ama orain dela gutxi hil zen eta, Mermel-ek hori badakienez, Fer-ekin *tableta*rekin jolasten geratzen da, amaren argazkiak ikusten. Manuela, oso triste, bere amagandik bereizi zutenetik gogoratzen da eta *tablet*-a malkoz betetzen du.

Pituk urrutitik Mermel deitzen du eskuarekin keinuak eginez:
—Mermel, Mermel! —Pitu bere amarekin, bere aitarekin eta bere aitak beste neskarekin izandako bi anaiekin bizi da. —Mermel, **zuk zergatik ez duzu familiarik?**
Mermel-ek Manuelari begiratzen dio, berarekin dagoenean, neguan udarako beroa sentitzen du eta badaki ez dagoela bakarrik.
—Manuela nire familia da. Zer da zuretzat familia bat?

Peca-k, meloia jaten ari den bitartean, solasaldia entzun du, bere bi ahizpa zaharragorekin bizi da. Bere gurasoak eta bere ama beste herri batean bizi dira. Peca, giza ugalketa lagunduaren tekniken bidez sortua izan zen.

Peca erantzutera doa eta une horretan trumoiak jo du.

DANBA, DANBA! Busti egingo gara!

Badirudi tximista bat Mermeleren gainera eroriko dela baina Manuela astameak ostiko batez saihesten du. Gero eguzkia sortzen da, ostadarra zeruan eta Manuelaren ilea kolore anitzez bihurtzen da.

Orduan, Mermelek oihu egiten du:
—Familia izateko era anitzak daude. Zein da zeurea?

Eta hau hala ez bazan sar dadila kalabazan…
Ipuin arraro eta busti hau bukatu da.
Oraingoz, Mermel-en mundu arraroa bukatzear dago, ziur aski abentura berriak biziko ditu eta istorio hauek ez dira hemen eta orain bukatzen…





# MERMEL-en MUNDU arraroa

*Ipuinen hasieran,*
*Mermel-ek ez zuen ilerik, ez gorputz formarik,*
*ez azal kolorerik, ez tamaina zehatzik.*
*Ipuinen hasieran, Mermel-ek ez dauka, bakarri zen.*
*Harik eta egun batean asmatzea erabaki zuen arte…*

CCOO
enseñanza

9 788409 175680